



UMANDI GURASO ELKARTEA

www.umandi.net/ampaumandi

GURASO ELKARTE BILERA

Umandi ikastolan 2013ko Martxoak 7an, eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuaz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Yolanda Castillo (diruzaina) Itsaso Imaz (idazkaria), Marivi Perez de Alveniz, Ainara Bastarrika, Ainhoa Velez, Eneko Etxegarai; Encarna Bonilla, Alberto Torrecilla, Ana de la Flor, Marta Mendaza, Peio Cernadas, Beatriz Sáez, Txetxi De Felipe, Nagore Montoya.

Hasiera ordua: 17:00.

Bukaera ordua: 18:30.

EGUNEKO AZTERGAIK

Eguneko aztergaiekin hasi aurretik guraso batek planteatutako gaiari lehentasuna ematen zaio, gaiak duen garrantziagatik.

Koldo Mitxelena ikastetxean D.B.H 1. Mailako behin behineko zerrendak argitaratu dira eta Umandi ikastetxeko 2 ikasle kanpoan geratu dira nahiz eta Koldo Mitxelena ikastetxea erreferentzi zentrua izan, guztira 12 ikasle geratu dira kanpoan. Sortu den arazo honen arazoia beste bi zentru onartu direla Koldo Mitxelena ikastetxean, eta are gehiago datorren urtetan arazoa areagotu egingo dela.

Arazo larri honi konponbidetzat zenbait proposamen aurkeztu dira.

- Ikastetxeak eta guraso elkarteak sinaturiko idatzi bat egin, hezkuntza sailera dagokionari bidaltzeko.
- Denon Eskolako hurrengo bileran arazoa aurkeztu.
- Martxoak 15-ean behin betiko zerrendak ateratzen dira eta erreklamazio bat egin.

-AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA:

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

-LOMCE ADIERAZPENA:

LOMCE legearen gaineko informazio orokorra ematen da, eta mahai gainean jartzen da lege berri honek gure seme-alaben hezkuntzan izango duen eragin kaltegarrian, eta guraso elkarte moduan adi egon behar garela datozen mobilizazioetarako.

-NAZIOARTEKO LIBURUAREN EGUNERAKO EKINTZAK.

Egun hau ospatzeko Marivi liburutegiko arduradunaren eskaerari erantzunez, guraso batzuk bere burua aurkeztu dute kurso bakoitzean liburu baten aurkezpena egiteko, hurrengo asteetan berarekin bilduko dira aurkezpenak zehazteko. Aktibitate hau Apirilak 13-19 astean burutuko da.

-KORRIKA 2013:

Korrika txikia Martxoak 14-ean ospatuko da, arratsalde ez dago eskolarik ezta kanpoko ekintzarik egongo.

Korrika handia martxoak 19-an izango da arratsalde eta gure kilometroa Artapadura inguruan izango da. Aurten ikastolak ez du dirurik jarriko kilometroa erosteko, beraz sarreran kutxa bat jarriko da nahi duena dirua bertan botatzeko. Beti bezala 6. Mailako ikasleek eramango dute testigua.

-BATZORDEEN EGOERA EGUNERATUA:

🕒 DENON ESKOLA:

- Ekainak 2.an euskal eskola publikoaren festa ospatzen da Murgian, Denon eskolaren eskutik gonbidapena zabaltzen da Arabako guraso elkartei parte hartzera animatuaz, eta autobusak jartzea parte hartzea errazteko.

- Eskola jantokien asetasun inkesta bat aurkezten da, interesatuak egon ezkeru Denon eskolarekin kontaktuan jartzeko.

🕒 KANPOKO EKINTZAK:

-Kanpoko ekintzakoei galdetu zitzaien ea ikastolako festako krosas arduratuko zire, eta ez da ego erantzunik.

-Deportivo Alavesarekin elkarlan itzarmenari ezezkoa esatea erabakitzen da.

🕒 WEB ORRIA:

Web orria berritza begiratzen ari den arduradunak komentatzen du orain ba daudela gauza berriak askoz maneiagarriagoak eta oraingoa baino merkeagoak. Hau datorren urtean izan beharko zela Otsailean bukatzen dela oraingoekin kontratua.

-BESTELAKOAK:

- Galdetzen da ea kontratua daukagun kanpo ekintzako enpresarekin, ezezkoa erantzuten da .

- Olentzeroaren panpina konpontzen ari direla informatzen da.

- Elurte garaietan gurasoen laguntza beharko zela komentatzen da.

- Eskola aseguruak urrian amaitzen da.

- Ikastolako jairako kartelerako lehiaketa bat egitea aurkezten da, eta epai mahai bat sortu beharko dela.

- Ikastolan baratze bat sortzeko posibilitatea aurkezten da, irakasleekin hitz egin beharko zela klaustroan hitz egin dezatela eta ez ba dago laguntzarik beraien aldetik beharbada udaletxeko baratzeekin zerbait egin zezakeela.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat ematen da 18:30etan eta hurrengo bilera Apirilak 11 arratsaldeko 19:00 tan izango da.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-